

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ibaiak zaintzeko beste protokolo bat sinatu dute Bidasoako arroa babesteko

"Nazas del Bidasoa" Arrantzaleen kluba ibaia zaintzeko eta hobetzeko lankidetzaz-eredu honetan sartu da

Ostirala, 2017.eko urriak 20

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak eta "Nazas del Bidasoa" Arrantzaleen Klubak Nafarroako Ibaiak Zaintzeko bigarren protokoloa sinatu dute Bidasoa ibaiaren ingurua babesten elkarrekin lan egiteko, eta arroko Natura 2000 Sareko eremu babestuen esparruan aritzeko.

Akordioa gaur goizean sinatu dute Bertizko Natura Parkean Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako zuzendari nagusi Eva Garcia Balaguerrek eta klubeko lehendakari Martín Urdánóz Ervitik.

Nafarroan egiten den ezaugarri honetako bigarren akordioa da, joan den abuztuan Baztango Ehiztari eta Arrantzaleen Kirol Elkartearekin ibaiak zaintzeko lehen protokoloa sinatuta Baztan-Bidasoa eta Leitzaran ibaien inguruan, eta arroko Natura 2000 Sarearen eremu babestuen esparruan (Bertizko Jaurerria, Belate eta Artikutza).

Ekimena LIFE-IREKIBAI Europako proiektuaren barruan sortu da, eta azken urtean Nafarroan egindako arrantzaren partaidetza-prozesuaren ondorioak jasotzen ditu. Bere helburua da herritarrek ibaien kontserbazioan eta hobekuntzan, eta aipatutako arroko Natura 2000 kontserbazio-eremu berezien kudeaketan parte hartzea, Ingurumeneko Zuzendari Nagusi Eva Garcia Balaguerrek protokoloa sinatu duen ekitaldian adierazi duen moduan. Horrez gain, hauxe azpimarratu du: "elkarlaneko ereduak formalizatzen jarraitu nahi dugu, gure komunitateko ibai-inguruetan proposatzen diren antzeko ekimenetarako suspergarriak izateko".

Halaber, Ateak Zabaltzeko Egunak gogoratu ditu Lesakako Nasara eta Oronoz-Mugairiko pizifikatoriara bisitak egiteko. Horiek, azaroan izango dira, eta han egiten den lana ezagutzera emango dute: "Gure instalazioetan egiten den lana ongi ezagutzea nahi dugu, horrela, gure ibaien ingurumen-errealitatera hurbilduko garelako".

Bestalde, "Nazas del Bidasoa" Arrantzaleen Klubeko lehendakari



Eva García eta Martín Urdánóz, Life Irekibaiko Jarraipen Batzordeko beste kide batzuekin.

Martin Urdanoz Ervitik adierazi du elkarteak interes handia duela Ingurumenarekin lankidetzan aritzeko. "Oso garrantzitsua da guretzat arrantzaleen elkarteak elkarlanean aritzea eta gure ibaien hobekuntzan parte hartzea", adierazi du.

Konpromisoa hartutako arrantzaleak

Kluba irabazi-asmorik gabe erakundea da. 2015. urtean hasi zen jarduten eta askotariko arrantzaleen elkarte dinamikoa da. Bidasoa ibaia zaintzeko eta hobetzeko ekimenak sustatzeko gogo handia du. Protokolo hau sinatuz Nafarroako arrantza-elkarteekin egiten ari den arrantza-kudeaketan elkarlana finkatu nahi du, eta bazkideen eta herritarren artean ingurumena kontserbatzeko eta zabaltzeko jarduera gehiago egin nahi dira. Horrenbestez, helburua da balio ekologiko horiek gordetzea da, arrantza-espezieen eta arroko habitaten onurarako; baita eragindako herritarako ere.

"Nazas del Bidasoa" Arrantzaleen Kirol Klubarekin sinatutako lankidetzaprotokolo honek bideak ezartzen ditu elkarri aholku emateko eta arrantzaleentzat, ibaiaren beste erabiltzaile batzuentzat eta bertako biztanleentzat sentsibilizazio-ekintzat egiteko, arrantza iraunkorraren eta arrantza tradizionalaren kontzeptuak zabalduz. Era berean, akordio hauen barruan, informazioa eta dokumentazioa trukatzeari proposatzen da.

Akordioak Basozainekin elkarlanean aritzea barne hartzen du, ibaiarekin lotutako espezieen azterketa teknikoak, lursailari buruzko ekintza jakinak edo espezie basatien egoera hobetzeko ekintzak egiteko. Klubak boluntario egonkorren sare bat formalizatzeko eta ibai-ekosistemaren eta arrantza-kudeaketaren hobekuntzak proposatzeko.

Zenbait eragile historiko eta geografiko direla eta, Bidasoa ibaiak bere jarraitutasuna eteten duten hainbat eragozpena metatu ditu. Horren ondorioz, ekosistemak aldatu dira eta espezierik ahulenen (erdi uretakoak diren ugaztunak, hala nola bisoia edo desmana, eta zenbait arrain, izokina esaterako) banaketa-eremua murriztu edo zatitu da. Horrez gain, isolamendu genetikoa eta beste eragin batzuk direla eta, ezinbestekoa da elkarlanean aritzea, haien jarraitutasuna eta berreskuratzeko gaitasuna bermatzeko eta egon daitezkeen presio berriei aurre egiteko.

Arrantza jarduera interesgarria da landa-ingurunerako, eta ehunka zale ditu Nafarroa osoan. Beraz, ezinbestekoa da kontserbazio-politiko publiko nahiz pribatuak arrakastatsuak izateko partaidetza erantzulea izatea.

Nafarroako Gobernuako Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak bertako biztanleekin lan egiteko politikarekin jarraitzen du, ibaien zainketa sustatzeko, landa eta natura ingurunea ere zaintzeko helburuarekin.